

Bezeroekiko harremanari garrantzi handia ematen diogu gure enpresan, harreman egokia edo ona izatea funtsezkoa deritzogulako. Hori dela eta, gure bezeroekiko harremana pertsonala da. Durangon kokatutako lokalera joan behar dira gure bezeroak zalantzak argitzeko eta produktuak lortzeko. Horrez gain, telefono zenbaki bat izango duru zalantza puntualak argitzeko. Arrakasta izanez gero, webgune bat zabalduko dugu erosketak bertatik egin ahal izateko.

Beraz, lokalera datozen bezeroetaz arduratuko diren pertsonak Pello eta Enara izango dira. Telefonoz deitzen duten bezeroei Amaiak argituko dizkie zalantzak. Webgunea zabaltzeko tan Ainhoak edukiko luke honen ardura, eta webgunearen publizitateaz June arduratuko da.

